



b

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

593. zkia.

XIV. urtea

2006ko azaroaren 24a

Nerea Iñiguez, Nikaraguan dentista

«Haur asko ikusi ditugu
drogaren munduan sartuta»

TXARRIDUNA HOTELA



ENPRESENTZAKO INAUGURAZIOA

Azaroak 28an,
asteartea
19:30ean

HERRITARRENTZAKO INAUGURAZIOA

Azaroak 29an,
asteazkena
19:30ean

- 22 logela
- Kafetegia
- Balio anitzeko gela: bilkurak,...

Ermuaran Bide, 3
20870 ELGOIBAR

reservas@hoteltxarriduna.com

Tel.: 943 748 778
Faxa: 943 748 779





AITZOL GARMENDIA



SARE GURRUTXAGA

ZOZOAK BELEARI...

Sare,
"Bide luzean urratsa labur" eta "Urrun helduko da geratu barik geldiro doana".
 Horra irakurri berri ditudan esaldiak. Esatera borobilak, arrazoiz beteak. Konstantzia eta esfortzua, sakrifizio gaitasuna eta diziplina. Asko miresten ditudan ahalmenak, batzuetatik dosi handiagoak nahiko nituzkeelako beharbada.

Eta halabeharrez esaldi hauek atzo Karakaten bizitako igoera ekartzen zidaten gogora. Pena ez hintzela atzokoan bertan izan. Polita espektakulua eta hobea giroa. Aurreko astean Behobian izandakoa ez zunan makala izan, baina honek pauso bat harago zirudín itxura batean. Dorsal zuri gutxi hemen, ia denak gorri eta horiak igotzaileen papar aldean. Partaidetza eta markak elitista formatura eramán dináte oraingoz herriko frogá ez oso herrikoí hau.

Plaza handiko frontis hotzetik, Elgoibar-ko herri-auzoetan barrena saltaka, azken etxe nahiz baserriak atzean utzita, asfaltetik mendiaren azal gogorrera salto eta maldan gora, puntu geodesikorarte, segil! Bi kilometro eta erdiko bidea zazpiehun metroko desnibeleán gora. Ordu erdi eta berrogei minutu tartean gehiengoá anteanapean. Urrats bizkorrak geratu barik azkar urrunera!

Behobiatik Donostirakoa egin dun arden Sare, Karakaten gora animatuko haiz datorren urtean?

«Sare, Karakaten gora animatuko haiz datorren urtean?»

AITZOL

«Puff... lekutan zagok datorren urtea, Aitzol»

SARE

Puff... lekutan zagok datorren urtea, Aitzol. Eta lekutan zagok Karakate punta plaza handitik korrika joateko. Nahiago diat astiro-astiro haize frexkoa birketaratzu mendi buelta batez gozatzea.

Behobiakoa egiteko gai izan nintzela gogoratze hutsak oilo-ipurdia jartzen zidak. Ez nauk korrika eginez sufritzeko jaioa. Polita izan zuan esperientzia baina nork agindu ote zidan bi orduz korrika aritzeko!! Derrigorrezkoa balitz ederki kexatuko ginen, bai.

Konstantzia, sakrifizio gaitasuna, esfortzua... aipatu dituk. Bizitzan nahi dituan ametsak lortzeko beharrezko osagaiak. Ametsak, erronkak, desirak erraz lortzekoak balira, esfortzurik gabe, nekerik gabe, ez lukete lortzeak pizten duen poz suziria piztuko.

Baina sarri agortu egiten dituk osagaiok. Amore ematen diagu. Indarrik gabe geratzen gaituk malda gorari amaiera ikusten ez diogunean. Beheraka joatea errazagoa dela sinisten diagu, Karakateko antena goian dagoela dakigun arren.

Denok diagu Karakatera igoera bat, Behobia-Donostia bat edo Elgoibarko itzuli pertsonal bat barrenean. Esfortzu, dedikazio, izerdi eta akaso malkoren bat eskatuko diguna. Baina helmugaratzeak guztiz eklipsatzen ditik guzti horiek, lortu duanaren lurrin goxoz. Badakik, ezina, ekinez, egina.



BATZUTAN EDERRAGOA DA IBILTZEN IRISTEA BAINO; EZ DAGO IRITSIERARIK, BIDEAN UNE BAT BESTERIK EZ DA



Gino Vermicelli

Nondik heldu? Nora heldu? Zeri heldu? Zergatik heldu?

Galdera hauen guztien erantzunek KORRIKA 15arekin dute lotura, eta berau datorren urteko martxoan izango bada ere,ekin diogu prestaketari eta prestaketa horren atariko *laguntzaile kanpaina* izango da.

Kanpaina hau, herritar askok dakiten bezala, *laguntzaileak* baitira aspalditik, azkenengo KORRIKA guztietan egin da eta bere helburua AEK-k dituen beharrei erantzuteko, dirua biltzea da. Aurtengoa biltzen den dirua Nafarroako gau eskoletara bideratuko da, bizi duten egoera tamalgarrinari aurre egin diezaioeten.

Orain arte 20.000 *laguntzailek* esan diote baietz kanpaina honi eta 12 euroren truke *LAGUNTZAILE TXARTELA* jaso dute etxean. Txartel honen jabeak KORRIKARI laguntzeaz gain, aukera izango du Euskal Herriko hainbat dendatan beharpenak lortzeko, tartean gure herriko komertzio askotan eta kultur jarduera batzuetan.

AEK euskaltegitik ekimen honetan parte hartu nahi duzuen herritar guztioi, dei egiten dizuegu AEK euskaltegira etor zaitezten, Plaza Txikira, edo 943 741332 telefonora deitu nahiz elgoibar@ae.net helbidea erabilita, gurekin harremanetan jar zaitezten.

AEK EUSKALTEGIA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR EKARTEA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **San Frantzisko kaleko zenbait bizilagunek zaborra botatzen dute errekarra:** "Neure begieiz ikusi nuen nola egiten zuen hegan esne kaxa batek. Ez dago eskubiderik. XXI. mendean oraindik ere zaborra leihotik errekarra botatzen du jendeak. Demaseko lana egiten ari dira Udala eta Jaurilaritza Deba ibaia garbitzeko, depuradora martxan jartzeko diru mordoak gastatu dute eta herritarrek zikinkeria botatzen dute ibaira. Errespetu dezagun natura, mesedez, denok irabaziko dugu-eta!".

• **Erretxindi auzoan autoak haur parkeraino sartzen dira:** "Jendeak autoa haur parkeraino sartzeko ohitura hartu du. Erosketak egitera joaten dira, eta gero autoa deskargatzeko portal aurreraino eramaten dute kotxea. Erretxindiko haur parkean umeak jolasean aritzen dira, eta autoak barruraino sartzen badira, ezin izaten dira lasai ibili. Errespetu apur bat eskatuko nuke. Jendea erosotasunera ohituta dago, baina umeek ere euren gunea behar dute."



TXALOAK



• **Txalo bero bat Arima Beltza taldeari:** "Berriro ere gozamen ederra eskaini ziguten Arima Beltza taldekoek Herriko Antzokian. Eserita ikusi beharra izan zen pena, momentu batzutan jarlekutik salto egiteko gogoia ezin eutsita egon ginen. Taldea desagertze-ar dagoela entzun dugu. Dudarik gabe, talde handia galduko du musikak. Eskerrik asko 10 urte hauetan eskaini diguzuen gozamenagatik".

• **Herriko dendari batek Mugerza Kroseko antolatzaileak txalotu nahi ditu euskararen alde egin duten lanagatik:** "Mugerza kroseko trofeoak emateko eskaria luzatzen digute urtero antolatzaileek, eta aurten euskaraz idazteko eskatu digute, eta gainera, beraiek bidali digute testu eredu bat. Eskertzekoa da benetan, euskararen aldeko apostua egin behar da kirolean eta alor guztietan."

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko
Udala

Imagen PostScript
Sin t'tulo-2



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNOREN *Luma*

Turismo bulegoa?

Hitza eman genion elkari. Hiru lagun Gasteizen, iraileko arratsalde sargori (non gelditu ote ziren egun bero haiek!) batean. Dato kalean, ONCEko saltzailearen txistu hotsak, autoen joman etorriak, akordeoi jotzailearen melodia lasaiak (enpresariaren estresa lasaitzeko ote?) eta herritarren berbak ziren nagusi.

- Barkatu, turismo bulegoa non dagoen badakizu?
- *No le entiendo.*

Bagenekien ez zela erraza izango euskal hiriburuan euskaldunik aurkitzea, alabaina, gureari eutsi genion.

- Kaixo, arratsaldeon, turismo bulegoaren bila gabiltza...
- *¿Turismo que? ¿Zomo andaluce!*

Akabo, saiakera askoren ostean, etsi egin genuen. Lehendabiziko hitzak euskaraz behar zuela aho batez onartu bagenuen ere, horrela jarraitzeak zentzurik ote zuten galdetu genion geure buruari.

- *Hola, buenas tardes, ¿saben dónde está la oficina de turismo?* -bi emakume nagusi oraingoan. Hauek ere, erdaraz erantzun ziguten, ez ordea, aurrekoen jario eta erraztasun berberarekin. Horrenbeste tira-biraren ostean, gertatutakoa komentatuz turismo bulegora jo genuen. Orduan, emakume bikoteak entzun eta...

- Neskak, Ondarrutarrak gaz! -hura bai ustekabe atsegina. Esan beharrik ez dago, usteak erdiak ustel, Gasteizen ere euskarak badu lekurik.

Ane Odria

[ZORTZIKO TXIKIAN]



CARLOS LAHOZ

GABI JATETXEOA

Zer da maridajea?

Ardoa eta janaria uztartzea da. Janari bakoitzari ardo bat doakio. Nire ustez ardoaz gozatzeko modu onena da.

Nola animatu zarete hau antolatzeraz?

Ardoa gustatzen zaigulako.

Ardoa oso desberdina da janari batekin edo bestearekin. Lau edo bost plater jarriko ditugu, bakoitza bere ardoarekin. Enologo bat ere etorriko da.

Zein garrantzi daukate jatekoak eta ardoak?

Biak dira garrantzitsuak. Lehen jatekoari garrantzia gehiago ematen zitzaien, baina orain bodega asko zaintzen da.

Txuleta bati zein ardo doakio?

Ardo beltza, kiantza edo erreserba bat.

Arrain edo mariskoari?

Ardo txuria, baina arrain batzuk onartzen dute kiantzako ardoa.

Afari erromantiko bati, zein ardo?

Cava oso ondo doa.

Sekula jango ez zenukeen jatekoa?

Nik dena jaten dut. Gauza guztiak probatu behar dira.

Afari on bat ur botila batekin, posible al da?

Bai, posible da. Jatetxe askotan ur kartak ere badaude. Hala ere, janari batzuk gehiago gozaten dira ardoarekin.

komikia

Hil da gero...



KokoE 079

[AKORDATZEN NAIZ]



ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

«Telebisiua, eskuko telefonua, ordenadorea»

Basarrizan ez geunkan telebisiarik. Ezkondu eta urtietara ekarri gendun guk telebisiua etxera. 1961-ian ezkondu eta 1967-xan edo erosi gendula uste dot. Beste batzuk ere erosi zebeu eta! Gauza berrixa zan. Madriden pasatzen zana Elgoibarren ikustia gauza haundixa zan. Zuri-beltzian zan, baiña politxa.

Lehenengo nobedadia Amerikauak illetargira allegau ziraneko notizia izan zan. Iruki harek ikusgarrixak ziran, ezin gendun sinistu. Deportiak, notiziak... Kanal bakarra zavan, baiña gustora egoten giñ an hari begira.

Lehen, telefonoz ere harixa bihar zan, eta oin mobilak hori ere ez da bihar! Nik ez daukat mobilik, horra ez naiz allegau oindiokan, eta ez dakit allegauko naizen.



Begiko arazua euki aurretik ein nitxun bi kursillo. Gustau jatan: gauza ona da. Gero, retinako arazua euki nabarian laga ein nion, eta oin beriz hastia kostau eitxen da, ez naiz animatzen. Ez dot bihar bezela ikusten, eta kostau eitxen jata. Gaiñ era, ez nau horrenbeste betetzen. Biharrezkua da, informazio asko dago han, danera allegatzen zera, baiñ a gure edadian bihara baino gehixago kapritxua da.

[GURE BERBAK]

Helburuzko esaldixak (1)

Helburu bat edo intentzio bat adierazteko erabiltzen ditugun esaldixak dira helburuzkuak. Saill honetan ere egittura bat baiño gehixago darabilgu Elgoibarren; beti bezela, batzuk aditz jokatua daukenak (*liburua ekarri deixan*) eta beste batzuk jokatugabia daukenak (*liburua ekartzian*). Jokatuekin hasiko gara gaur. Horretan, subjuntiboko aditza daukenak dira helburuzko esaldi mota bakarrak. Ekari deiguzen adibide batzuk:

Baraurik juten giñuzen etxetikan, eta bezperan arpegixa garbittuta, gaiñera, ur tantarik sartu etze(d)liñ, pekatua zala ta.

Gaixorik zavan, eta beti indiziua ematen ziuén, kalenturia etze(d)liñ egon.

Ibilli zan arrankau nahixan automobililla, baiña nik kendu nion pieza bat iñok erabilli ez ze(g)lixan. Haura gabe ezin zeikian jua garai haretako automobilillak.

Abioiak juten dittuk, pilotua kantsau ez deixan, hankak libre, ez automobilletan bezela.

Jesus Mari Makazaga



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estakura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra

San Roke, 7 behea
Pol. OIaso - OIasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

GRUPO
VILARCHAO



Bukatua S. Coop.

OIaso industrialdea. OIasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



LOKALAK ETXE BIHURTUZ

BA AL DU ETORKIZUNIK LOFTAK GUREAN?

Iragan den astean, Babes Ofizialeko etxeak izan bagenituen hizpide, oraingo honetan, bestelako aukera baten berri eman nahi dizuegu. Dagoeneko, zuetariko askok adituko zenuten, "loft" terminoa. Loftak, etxebizitza izatera igarotzen diren lokalak dira; bai komertzialak nahiz lurzoru industrialean kokatzen direnak.

Bizitegi hauen hastapenak, New Yorkeko hirian eta 50. hamarkadan kokatzen dira. Loften jatorria, hirietako industria guneetan erakitako lantegi eta biltegi eraberrituetan aurkitu dezakegu. Espazio handien beharrak bultzatuta eta pisu zein apartamentuen salneurri altuen eraginez, garai hartan, lantegi eta biltoki hutsek garrantzi handia bereganatu zuten. Denborakurrera egin ahala, birgaituak izan ziren lokalok, jatetxe, denda, edo margo zein argazki estudioetara moldatuak izatera igarotzeko. Baina berehala, loften erabilerak, bere arreta guztia etxebizitzaren esparruan jarri zuen.



LOFTAK

Gaur egun, loft motako bizitegiak, gizarteko fenomeno batean bilakatu dira. Bizimodu banguardista eta zenbait kasutan, goi mailako bizitza estiloaren adierazgarri da.

Loften ezaugarri edo bereizgarriak esanguratsuena, espazio handiak eta argitsuak izatean datza. Bere egituraketa osatzen duten materialen artean, hormigoia, aluminioa, egurra eta marmola dira erabiltzenak. Loftetako espazioa, bionbo, hormaz edo soilik, altzarien bidez banatua egun ohi da.



ELGOIBAR ETA LOKALAK

Elgoibarren, badira zenbait lokal, hasieran komertzialak zirenak eta geroago, bizitegi bilakatu direnak. Bizitegi hauek duela urte batzuk onartuak izan ziren zegozkien berrikusketak pasa eta bizigarritasun baimena lortu ostean.

Modu berean, Elgoibarren loft baten antzeko etxebizitza bat dagoela jakin dugu. Bertako jabearekin hitz egin dugu eta bizitoki mota honen hainbat xehetasun azaldu dizkigu. Lehenik eta behin esan, bere lokala sortu ahal izateko, udaletxeak eskatutako hainbat baldintza bete behar izan zituela bere lokalak. Aireztapena, argiztapena, eta garaiera begiratu zitzaizkion eta lokalera sartzeko sarbideak zuzenean kalera eman ez zezala, izan ziren eskaturiko zenbait irizpide. Aldez aurretik, tekniko kualifikatu batek eginiko proiektuaren azterlan bat eskatu zioten. Honela aparejadorearen onespina lortu, Udaleko Hirigintza Saitetik igaro eta guztia berrikusi ondoren, obrekin hasteko baimena eman zioten.

Lokal honek dituen alderdi onen artean, honakoak aipatu dizkigu. Batetik, lokalaren garaiera eta gainazala etxe arrunt batek duenaren bikoitza da. Ideia bat egiteko, herritar honen lokalaren azalera 250-260 metro karratutakoa da. Modu berean, izugarritzko lehiateak ditu. Pisu arrunt batekin alderatuz, espazioa handiagoa edukitzean, horrek garaierekin jokatzea ahalbidetzen dio. Honela, solairu baten baitan, bigarren bat, edukitzeko aukera du, ganbera edo trasteleku gisa erabiltzeko.

Loft bat, etxebizitza bat baino merkeagoa atera daiteke, baldin eta soilik, lau hormetara eta beste zenbait oinarritzko gauzetara mugatzen bazara. Lurzorua, aldez, garestiagoa da, eta margoketa lanak aurrera eramanez gero, etxebizitza bat baino garestiagoa ateratzen da. Honi, elektrizitate harien kostua erantsi behar zaio. Hortaz, erlatiboa da, bietako zein aukera den merkeagoa.



LOKALAK GUREAN

Espainiar estatuan, duela hamar bat urte eskas iritsi ziren loftak. Beren hedapena motela eta mugatua izan da, batez ere, hiri handietan.

Loftak eta etxebizitza izatera igaro diren lokal komertzialak, bi gauza desberdin dira, azken batean, loftak, lurzoru industrialean eraikitako bizitegiak baitira. Lokal komertzialak bizitegi bilakatzeko ekimenaren aintzindari Arrasate izan zen Euskal Herrian, duela sei urte gutxi gorabehera. Orduetik hona, eskari ugari jaso dituzte eta horietatik, 50-60 lizentzia eman dituzte.

Elgoibarrera jauzi eginez, aipatu Udaletxeko Hirigintza Saitetik jakinaz dugutenez, momentuz ez dagoela gure herrian Loften sorrera arautzen duen araudirik, ezta egiteko asmorik ere. Oraingoan, estatuko herri gehienek ez dute loften erregulazioa arautzen duen legedi zehatzik.

Sarean aurkitu dugun informazioaren arabera, udaletxeen %90ak, bizigarritasun arauetara jotzen dute gisa honetako etxebizitza bat sortzeko eskaera luzatzen duen orori baimena igorri edo, alderantziz, eskaera bertan behera uzteko garaian.

Orohar, udalerrietako arauak, lokal bat bizitoki gisa onartzeko, zenbait baldintza betetzea finkatzen dute: lokalak gutxienez, 30 metro inguruko gainazala eduki behar du eta lurretik solairua arteko gutxieneko garaiera 2,50 metrokoa izatea. Horrez gain, argiztapen eta aireztapen indizeak %8 eta %12 bitartekoak izan behar dute. Loftaren salneurria, gora doa eta metro karratua 1.800 eurora iritsi daiteke.

[PROTAGONISTA]



JonLoiola

Donostiako Artzai Onaren Katedralean, apaiz ordenatuko dute bihar, azaroak 25, Jon Loiola elgoibartarra. Eguerdiko 12:00etan izango da ekitaldia, eta Joan Maria Uriarte Gotzaina izango da izendapen honen arduraduna. Aste honetan ejerjizio espiritualak egiten aritu da Jon Loiola Irunen. 31 urte ditu, eta duela 6 hasi zen apaiz izateko ikasketak burutzen. Jaiotzez kaletarra den arren, azken 10 urteotan San Pedro auzoko Usatorre baserrian bizi da. Joan zen irailetik Erreterian ari da apaiz moduan lanean, eta momentuz bertan jarraituko du.

[NOTIZIA]

Udalak gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako plana aurkeztuko du

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako plan bat aurkeztuko du Udalak datorren azaroaren 28an. Arratsaldeko 20:00etan izango da aurkezpen ekitaldia Inazio Bereziartua Musika Eskolako auditorioan eta bertan izango da Miren Arantza Madariaga, Emakundeko idazkari nagusia.



Debabarrenako 5 herri

Eibar eta Emuako planak erreferentzi hartuta, Debabarrena Eskualdeko beste bost herritan jarriko dira martxan emakume eta gizonen arteko berdintasunerako planak. Debegesaren laguntzaz, Elgoibar, Mutriku, Deba, Soraluze eta Mallabini hasiko dira gai hau lantzen. Dagoeneko, goeraren diagnostia egin dute, eta dato-

zen bi urteetarako ekintza planak zehaztu dituzte. Helburu nagusia erakunde publikoetako jendea gai honekin sentsibilizatzea izango da, eta bide batez, gizonen arloak hartzen diren horietan, emakumeen presentzia areagotzea.

[ZENBAKIA]

150

150 lagunek jarraitu zuten Arima Beltza taldearen kontzertua www.elgoibarren.net webgunean. Une batean 45 lagun egon ziren konektatuta, eta munduko txoko desberdinetatik, gainera. Elgoibarko Izarrak duela hilabete jarri zuen martxan atari digitala, eta dagoeneko, 5.345 bisita izan ditu.

asteko [ARGAZKIA]



Elgoibarko Ezker Abertzaleak antolatuta, Euskal Herriko autodeterminazioaren aldeko hainbat ekitaldi izan ziren zapatuan Plaza Handian. Kolorez eta jendez beterik esnatu zen Plaza. Goizeko 9:00etan hasi ziren lanean, eta "autodeterminazioa" hitza jarri zuten mural erraldoia egin zuten. Eguerdiko 12:30ean komunikatu bat irakurri zuten, eta ondoren, "Nazioa" hitza osatu zuten 150 herritarrekin. Ekitaldiari amaiera emateko pintxoak eta ardoa banatu zituzten. Kanpaina honen baitan, "El viento que agita la cebada" pelikula eskainiko dute Herriko Antzokian abenduaren 14an.

Santa Klarako Babes Ofizialeko Etxeen zozketak zeresan handia sortu du herrian



[MOTZ-MOTZIAN]

Pertsona Ezinduen Zaintzarako ikastaroa

Debemen Elkarteak Pertsona Ezinduen Zaintzarako ikastaroa antolatuta du baseritarrentzako. 50 orduko ikastaroa izango da. Astearte eta ostegun arratsaldetan eskainiko da. Ikastaroa datorren abenduaren 12an hasiko da. Matrikularen prezioa 40 eurokoa da eta plazak mugatuak dira esan digute. Interesatuak Debemenen (943 744067) eman dezakete izena abenduaren 5a baino lehen.

Jubilatuaren Astea

Azaroaren 28an hasi eta abenduaren 8ra arte luzatuko da aurten Jubilatuen Astea. Zaharren Biltokiak ekitaldi desberdinak antolatuta ditu: azaroaren 28an txokolate jana izango arratsaldeko 18:00etan, hilaren 29an Iratxera (Nafarroa) egingo dute irteera, azaroaren 30ean Gabonetako 40 otarre zozketatuko dituzte eta abenduaren 1ean 80 urtetik gorakoentzat eta urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteentzako bazkaria izango da. Honetaz gain, kina saioa, dantzaldia eta jubilatuentzako meza berezia izango dira.

Amnistiaren Aldeko zozketa

Amnistiaren Aldeko zozketa egin da dagoeneko. Hauek dira zenbaki irabazleak: Furgoneta: 013844 (142870), Argentinara bidaia: 038811 (058195) eta ordenagailu portatila: 097692 (015810). Oraindik ez da irabazlea agertu eta ordezkoko zenbakia Elgoibaren saldutakoa da).



Aizkorri S. Koop. izeneko kooperatibak Santa Klara auzoan eraikiko diren Babes Ofizialeko 12 Etxebizitzaren zozketa egin du. Zozketa horretan parte hartzeko ez zen nahikoa Etxebizitzaren emanda edukitzea, Aizkorri kooperatibaren eman behar zen izena, irailaren 11tik urriaren 9ra bitartean. Honek zeresan handia sortu du herritarren artean, izan ere, oso jende gutxi enteratu baitzen honetaz. Azpilicueta Consultoresetik (Aizkorri kooperatibaren ordezkaria) esan digutenez, Gipuzkoako Boletín Ofizialean eta El Mundo egunkarian jarri zuten iragarkia.

12 etxe eta 12 pertsona

Azpilicueta Consultoresetik jakinarazi digutenez, 12 lagun bakarrik sartu ziren zozketan, baina 10 etxe zozketatu dira. Etxeetako bat zuzenean kooperatibako presidentearentzat zen, eta beste bat gutxitu fisiko batentzat; azken hau hutsik dago oraindik. Polemika handia sortu da zozketa honen inguruan. Herritarrek informazio falta handia egon dela adierazi dute www.elgoibarren.net atari digitalean. Etxebidek, Udalak eta Aizkorri kooperatibak berak, informazioa gehiago zabaldu beharko luketela aipatzen da, besteak beste.

Lokutorioa ireki dute Ubitarten



Inguruko beste herri batzuetan bezala, (Eibar, Azkoitia, Bergara...) aste honetan bertan ireki dute lokutorioa Ubitarten. Elgoibarren gero eta etorkin gehiago dago, eta hauei zuzenduta dago batez ere, lokutorioa. Beraien senide eta lagunekin hitz egiteko erraztasunak eskainiko zaizkie lokutorioaren erabiltzaileei. Besteak beste, telefono deiak merkeago egiteko aukera, internet zerbitzua eta beraien herrialdera dirua bidaltzeko aukera eskainiko zaie. Asteleheneetik igandera egongo da zabalik, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik gaueko 22:00etara.

Inkesta

Tratu Txarren Kontrako Nazioarteko Eguna izango da bihar, azaroak 25.
Zer egingo zenuke tratu txarren kasuren bat izango bazenu inguruan?

NAIARA MAZORRIAGA
Administrataria
31 urte



“Konfiantzazko norbait izanez gero, berarekin hitz egiten saiatuko nintzateke. Berak ez badu egoera salatu nahi, nik ez nuke egingo, kanpotik ezin da ezer egin.”

MONICA POMAR
Erizain laguntzailea
34 urte



“Lagun edo senideren bat balitz, berarekin hitz egingo nuke. Bestela, ez nintzateke gehiegi sartuko, berak laguntza eskatzen ez badu, hor sartzea arriskutsua izan daiteke”

AURORA RODRIGUEZ
Etxekoandrea
48 urte



“Bizilagunen bat izango balitz erasotua, etxepeko guztiak bildu eta arazoari irtenbide bat ematen saiatuko nintzateke. Gertuagokoa balitz, berarekin berba egingo nuke.”

BEGOÑA OÑEDERRA
Etxekoandrea
63 urte



“Ez nintzateke eskuak gurutzatuta geratuko, eta beharrezkoa izango balitz, ni neuz joango nintzateke egoera hori salatzen. Arazo honi irtenbidea eman behar zaio.”

[BAI ala EZ?]

2012. urtean izango al dugu Deba ibaian berriz bainatzeko aukerarik?

BAI %23

“Bai. Udala eta Jaurlaritza lan handia egiten ari dira eta nik uste dut lortuko dutela Deba ibaiaren garbitzea. Politak izango lituzateke umeak ibaian bainatzen ikustea.”

EZ %77

“Ez. Asko mehoratu beharko da egoera ni ur horietan bainatzeko. Egia esan, nazka apur bat ere ematen dit Deba ibaian bainua hartzeak.”

Semaforo eta zebrabideak errespetatzen ez dituzten oinezko eta gidariei isunak jarriko zaizkie. Datorren asterako... Errespetatzen al dituzu semaforo eta zebrabideak?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozelai.com

[GOMENDIOA]



Estitutu Uribeetxebarria

AMALURRA FISIOTERAPIA

Fisioterapeuta

Zaindu zaitez!

Gure bizitzaren historiako liburua gara. Bere lerroetan urteetan jan dugunaren, egin dugun lanaren, kirolaren eta loaren, izan ditugun ebakuntza, lesio eta abarren gorabeherak islatzen dira. Ezin ditugu albo batera utzi gure pentsamendu eta emozioak. Hauek ere, eragin zuzena daukate gorputzean. Adibidez, haserretzen garenean gorputz osoarekin haserretzen gara, ez buruarekin soilik. Horregatik emozio honetan blokeatuz gero, gorputzean tentsio guneak eta gerora min edo gaixotasunak azaldu daitezke. Honekin ez dut esan nahi amorrua eta antzeko sentazioak (tristura, erruduntasuna...) ekidin behar ditugunik, bai ordea, gure egunerokotasunean maiz agertuz gero, neurriak hartu aldatzeko.

Sarritan entzun dugu gure azalak memoria duela, baina ez dira memoria duten bakarrak azaleko zelulak, zelula guztiak baizik. Dena gordetzen da gure barnean.

Beraz, norberaren esku dago bere ongizatea. Gaur egiten dituzun aukeraketak bihar eragina izango dute. Baina lasai, inoiz ez da berandu ohiturak aldatu eta bizitza lasaiago eta osasuntsuagoan murgiltzeko.

Zaindu zaitez! Egin kirola, elikadura zaindu, bizitza eritmoa jaitsi, hartu zuretza-ko denbora tartea (yoga edo erlajazio arketak egin, masajeak hartu, gustuko hobiak landu...) oraina disfrutatu eta saiatu poztasunez, baikortasunez eta maitasunez betetzen. Ordainean, osasunaren ate ezkutu zabalduko duzu.

[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo baliuz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)

Jausoro, 6 behe

Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsalde.

San Frantzisko, 58 behe (Maalan)

Tel.: 943 74 53 14 63

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala,

prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

KONTSEZIO AZOKA 2006

Abenduaren 8an izango da aurtengo Kontsezio Azoka

Mendaroko Udalak eta Debemen Elkarteak antolatuta, datorren abenduaren 8an izango da Kontsezio Azokaren XII. Edizioa. Goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00etara bitartean, produktu desberdinak probatu, eta erosteko aukera izango da. Trikitilariak alaituko dute azoka eta eguerdiko 12:00etan Herri Kirolak izango dira.

Denetariko produktuak

Aurtengoan 15 postu desberdin jarriko dira Mendaroko Kontsezio Azokan. Herriko eta Euskal Herri osoko baserritarrek euren

produktuak erakusteko eta saltzeko aukera izango dute. Barazkiak, frutak, gozoak, ogiak, gaztak, nekazaritza ekologikoa... bakoitzak berea eramango du azokara. Honetaz gain, animalia desberdinen erakustaldiak ere ez dira faltako, besteak beste, behiak, behorrak, antxumeak... Bestalde, zenbait artisau, bere lanean ikusteko aukera ere izango da. Azkenik, eguerdi aldean txerri dastaketa egingo da Herriko Enparantzan. Sarien artean berrikuntza bat: 150 euroko saria emango zaio birlandatutako mendiak hoberen zaintzen dituen baserritarrari.




Alkortara Korrika igoera bihar, azaroak 25

Euskal Herriko Autodeterminazioaren alde lan egiteko asmoz, Mendaroko Ezker Abertzaleak Alkortara Korrika igoera antolatu du. Bihar, azaroak 25, izango da lasterketa. Goizeko 10:30ean emango zaio hasiera korrikaldiari udaletxe aurrean, eta Barberokua, Santa Krutz, antena, Itxasuetza eta Berasaluze pasatu ostean. Alkorta izango da helmuga. 4,7 kilometro izango dira guztira. Lasterketa honetan parte hartzeko ez da ordaindu behar. Mendaroko Txirristaka eta Ormola tabernetan eman daiteke izena, edo Elgoibarko Iratxo eta Txuri-Beltz tabernetan. Dena dela, egunean bertan izena emateko aukera ere egongo da. Alkortara igotzen diren guztientzat ha maiketakoa egongo da.


EHNA egiteko aukera izango da Kontsezio Azokan

Mendaroko Kontsezio Azokan Euskal Herriko Naziotasun Agiriak eskuratzeko aukera izango da. Bi argazki eta enpadronamendu agiriak aurkeztu eta 15 euro ordaindu beharko dira. Herriko Enparantzan jarriko da EHNA egiteko mahaiak. Interesatuak goiz guztian zehar izango dute aukera.



Jokin Urainek "Errotarria" izeneko liburua idatzi du

Jokin Urain preso mendarokarrak bere 4. liburua idatzi du. "Errotarria" jarri dio izenburua, eta "1936-2005: errepresioa, kartzela, deserria" dauka azpititulua. Jokinek azken 70 urteotako borrokaren kronika jaso du liburu honetan. Mendaroko Kontsezio Azokan egingo da liburuaren aurkezpena. Jokin Urain duela 20 urte kartzelaratuta zuten. Espetxean dagoenetik lau liburu argitaratu ditu: "Izaina" (1990) eta "Adlotsen" (1992) nobelak, eta "Gatibu sortu nintzen" kronika liburua.



KILI KLIK

Santa Zezilia Eguna

Mendaroko Musika Eskolak Santa Zezilia Eguna ospatu du aste honetan. Azaroaren 22an izaten da Musikariaren Zaindariaren Eguna, eta ekitaldi desberdinak izan dira. Astelehenean txistulari eta trikitilariak musika doinuak jantzi zituzten herriko kaleak, eta ondoren, Ameikutz Musika Eskolako ikasleek emanaldia izan zen Kultur guneko auditorioan. Asteazkenean, jai izan zuten Musika Eskolan.





JUAN MARI LARRAÑAGA

Mendaroko Udaleko langile ohia

«Jendeari laguntzen lan egitea da nire helburua»

Jaiotzez Elgoibarko Aldapa baserikoa izanik, urte asko eman ditu Mendaron eta orain Mutrikun bizi da. 22 urtez aritu da Mendaroko Udalean lanean. Denetarik egin du bertan, eta gauza asko ikasi dituela kontatu digu. Orain, bizitzako beste etapa batean sartu da, eta benetan gustatzen zaion lana egiten dihardu. Bere etxeko atek ireki dizkigu Juan Mari.

22 urtez Mendaroko Udaleko langile. Zein zen zure lana?

Denetarik. Udaltzain lana ere neuk egiten nuen. Mendaron ez zegoen udaltzainik eta orain ere ez dago. Lan zaila zen hau, batez ere, isunak jartzea. Herrian denok ezagutzen gara, asko lagunak dira eta gogorra zen. Honetaz gain, herriko mantenuaz arduratzen nintzen: lorezaintza, iturgintza, kanposantua, aberiak... Normalean bakarrik egiten nuen lan, eta noizean behin, denboraldi baterako langileak hartzen zituzten laguntzeko. Orain Mendaroko beste mutil bat geratu da nire lekuan.

Zer moduko esperientzia izan da?

Oso ona. Udal korporazio desberdinak ezagutu ditut eta denek erakutsi didate zerbait. Lankideekin oso ondo konpondu izan naiz beti, eta herritarrekin ere primeran. Gauza asko ikasteko aukera izan dut.

Zergatik erabaki duzu lan hau uztea?

Batetik, apur bat nekatuta nengoelako, baina batez ere, niri gustatzen zaizkidan lanak egiteko denborarik uzten ez zidalako. Masaje energetikoak ematen ditut, eta zahori eta radiestesista lanetan ere aritzen naiz. Hori da benetan niri gustatzen zaidana.

Masailari, zahori... aspertzeko denborarik ez daukazu, ezta?

Ez. Eguna motz gelditzen zait askotan. Etapa berri batean nago eta apustu garrant-

zitsua egin dut. Nire familia, baserria, udaletxea eta herria utzi nituen Mutrikura etortzeko. Etxea ere nik margotu dut eta altzariak eskuz egin ditut. Kontsulta txiki bat jarri nuen masajeak emateko. Jendeari laguntzea gustatzen zait, besteei lagunduz lan egitea da nire helburua.

Nolako masajeak ematen dituzu?

Masaje energetikoak. Egungo estresak sortzen dituen minak sendatzen saiatzen naiz. Mota guztietako jendea etortzen da, 12 urtetik 86 urtera artekoak. Honetaz gain, zahori lanak ere burutzen ditut.

Azalduiguzu zahori lana apur bat..

Tailer, baserri, txalet, udaletxe eta Diputazioetik deitzen digute askotan lur baten azpian ura dagoen ala ez jakiteko. Gaur egun lurra ikusteaarekin nahikoa daukat. Lehen bi barita erabiltzen nituen eta penduloarekin ere aritu izan naiz. Penduloak informazio asko ematen du; uraren kaudala, edateko modukoa den... honi deitzen zaio radiestesista. Honi esker jakin daiteke etxe batetik pasatzen den energia, edota antenek botatzen dutena.. lan asko dago hemen, honen ondorioz gaixotasun sendaezin asko sortzen baitira.

Noiz arte jarraituko duzu lanean?

62 urte ditut eta ahal dudan artean lanean jarraituko dut. Osasunez oso ondo nago eta jubilatuen bizimodua ez zait gustatzen. Nekatuta egiten naiz, baina gustura.



«Udaltzain lanaren alde gogorrena isunak jartzea zen»



GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

Nerea Iñiguez

NEREA IÑIGUEZ 27 URTEKO NESKA ELGOIBARTARRA DA. ODONTOLOGIA IKASKETAK EGITEN DIHARDU, ETA BI IRAKASGAI BAINO EZ ZAIZKIO GERATZEN KARRERA BUKATZEKO. DUELA HIRU URTE, "ODONTOLOGOS DEL MUNDO" IZENEN GKEA SORTU ZUEN ELGOIBARTARRAK, BESTE BI LAGUNEKIN BATERA. ERAKUNDE HONEN BAITAKO AURRENEKO PROIEKTUA, NIKARAGUARA ZUZENDUTAKO BIDAIA IZAN DA. IRAILAREN 22AN BIDAIA TU ZUTEN ERTAMERIKARA ETA HILABETEZ EGON DIRA HERRIALDE HONETAN. BEREN EGINKIZUNA, AHAL IZAN DUTEN NEURRIAN, NIKARAGUARREN AHO OSASUNA HOBETZEA IZAN DA.

“Nikaraguak ez du aurrerapausorik ematen gobernuak ez duelako nahi”

Nolatan sortu zenuten zuen ONG propioa?

Estreinakoz duela 3 urte joan nintzen Nikaraguara. Unibertsitatean, "Dentistas sin fronteras" izeneko Gobe-muz Kanpoko Erakundearen berri eman ziguten. Ikasitakoa praktikan jarri eta lurralde azpigaratuetako pertsonen laguntza eskaintzeko aukera paregabea iruditu zitzaidan. Esperientzia ona izan zen baina, garestia; 2000 euro inguru ordaindu behar izan genituen pertsonako hilabetean. Hori dela eta, Nikaragutatik itzuli ginenean, lagun batzuei GKE bat sortzea bururatu zitzaigun. Gure helburua, dirulaguntzaren bat lortzea zen. Behin, GKEa sortzeko baimena lortu ondoren, dirulaguntzak jaso ahal izateko, baldintza gisa, alde zuretik bi urtetako antzintasuna eduki behar zela azaldu ziguten. Are gehiago, dirulaguntzak erdiesteko, irizpide garrant-



BARREN



zitsu bat, proiektu oso onak edukitzea eta denboran jarraipen bat dutenak izatea da.

Nortzuk osatzen duzue GKEa?

Formalki hiru pertsonak osatzen dugu. Nikaraguara ordea, guztira bost lagun joan ginen. Proiektu honetarako, Gipuzkoako zenbait udalxetatik dirulaguntzak jaso ditugu. 5000 eurotako aurrekontua genuen eta diru kopuru hori, lan egiteko beharrezkoa zen materiala eta tresneria erosteko erabili dugu.

Zein zonaldeetan egon zarete?

Tikuantepen hartu genuen ostatua. Baldintzak ez ziren oso onak. Gainera, egunero arratsaldeko seiretatik aurrera argia mozten zuten eta batzuetan, ura. Gure eginkizuna, ordea, Managua, Masaya eta Carazoko probintzietan zentratu da.

Nola antolatzen zenuten eguna?

Gure eguneroko lan ordutegia, goizeko zortzietatik arratsaldeko seiak – zazpiak arte luzatzen zen. Elektrizitatez homitutako lokal hutsak egokitzen zizkiguten gure lana aurrera eramateko. Egunero, bostpasei poltsa geurekin hartu eta batetik bestera ibiltzen ginen, egun bakoitzean zegokigun herrira iritsi, material guztia atera, dena muntatu eta lanean hasten ginen. Halaxe egiteko, gomendatu ziguten, zonalde honetan, lapurreta asko egoten baitira.

Egunean zenbat pertsonari eskaintzen zenien odontologia zerbitzua?

Egunean, adin guztietako 60 pertsona ingururi. Batez beste, egunean, 150 enpate, 10 aho garbiketa eta 40 hagin atera ditugu. Berciek, bestelako tratamenduak ere, eskatu dizkigute, baina, ezin izan ditugu

burutu, makinaria eta material faltagatik. Aho zein hortzen zainketa nahiko egoera txarrean somatu ditugu. Bistan da, beraien ez dutela guk hemen dugun osasun kultura, hein handi batean, ez dutelako horretarako bitartekorik. Honela, 100 pertsonako, bi aho osasuntsu soilik ikusi ditugu. Gu prebentzioa sustatzen ahalegindu gara. Horretarako, bezero bakoitzari, hortzetako eskuilak bat eta hortzetako oreka ematen genien. Haurrei, eskoletan, haginak nola garbitu behar dituzten irakatsi diegu eta haginak garbitzearen garrantzia azpimarratu genien.

“100 pertsonako bi aho osasuntsu soilik ikusi ditugu”

Zer nolako egoera sozio ekonomikoa bizi dute?

Familiak egunean d lar batekin bizirauten dute. Guri bertakoek adierazi zigutenez, desoreka ekonomiko handiak daude. Batik bat, hemengo binzianleak, merkatuan saltzen dituzten produktuetatik bizi dira. Hala nola, eskulanak, narruaz eginiko arropak, elikagaiak, lepokoak... Txabolismo lekuetan bizi direnek, aldiz, apenas egiten dute lanik. Eskean aritzen dira, batez ere, haurrak. Badira, bi plazetako motor txikiak hartu eta taxi gidari moduan, pertsonak batetik beste-

ra eramatea lanbide dutenak. Haur ugari ikusi ditugu drogaren munduan murgiduta. Era berean, umezurtzegi bat bisitatzeke aukera izan genuen behin, eta sexu jazarpena zein tratu txarrak jasan zituzten adin txikikoen kasu ugari ere ezagutu genituen. Orohar, haurrek badute, eskolarizatzeko aukera. Bizi diren zonaldearen arabera, haurren bizi baldintzak eta eskolen egoerak hobegoak edo ezkorragoak izan ohi dira. Nikaraguarren hitzetan, Nikaraguar ez du aurrerapauso bat ematen, gobernuak ez duelako hala izaterik nahi.

Etorkizunerako asmoak?

Gure nahia, proiektu hobegoa eta zabalago bat sortzea litzateke, denboran, jarraipen bat edukiko lukeena. Izan ere, gure ekarpenak txikiak dira, nahiz eta beraien erabat eskertu. Nikaraguan egon gara eta lagundu dugu, baina, jende asko ezin izan dugu atendi. Zaila da GKE handiek ez bezala, dirutza handirik ez baduzu, jarraipen bat duten proiektuak abian jartzea. Guk ez dugu fondo handirik, ez azpiegiturarik, taldean ere, jende gutxi gara... Dena delarik ere, guk urtean behin bada ere, proiektu bat egitea gura genuke. Datoren urteari begira, gure egitasmoen artean, Ugandara joatea dago. Gu prest geundeke jende gehiagorekin lan egiteko eta ez litzateke ideia txarra, beste erakunderen batekin elkarlanean jardutea, indartsuagoa izan eta proiektu zabal eta jarraipen luzeagokoak gauzatzeko. Horrez gain, nire planen artean, laister, Emuan kontsulta bat irekitzea dago eta Kubara joatea ere, nahiko nuke, inplanteen ikastaro bat egitera.

Elgoibarko ikastetxe publikoek greba egin zuten martitzenean

Hezkuntza Publikoaren lan baldintzak hobetzeko asmoz, greba deialdia luzatu zuten sindikatuek (CCOO izan ezik). Besteak beste, lan konbenio berri bat sinatzea eskatzen da, eta honen banean soldaten igoera eta langileen egoera hobetzea. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietan egin dute greba deialdia. Gipuzkoan hilaren 21ean egin zen, eta Elgoibarren ere izan zuten oihartzuna. Herri Eskolan langileen %100ak egin zuten greba eta ez zen klaserik egon. Bertako zuzendariak esan digunez, "38 irakasle, 5 hezitzaile eta 3 sukaldari gaude Herri Eskolan eta denok egin genuen greba".



BH Institutuan %95eko eragina

BH Institututik esan digutenez, grebak eragin handia izan zuten: "Irakasleen

%95ak egin zuten greba. 5 irakaslek bakarrik egin zuten lan, eta ikasleen talde bat bakarrik agertu zen".

[IKAS KONTUAK]

Jostailuen Erakusketa gidatua

Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak antolatuta, Jostailuen Erakusketa gidatua inauguratu zen atzo. Kultur Etxeko sotoan jami dute ikusgai, eta bertan egongo da datorren domekara arte. Erakusketa honen helburuak desberdinak dira: batetik, guraso, haur eta hezitzaileei jostailuen gaineko informazioa emango zaie. Bestalde, erakusketara nagusi batekin joaten diren haurrei jostailuak erabiltzen utziko zaie, eta gurasoei jostailuen katalogoa banatuko zaie. Bisita orduak: gaur, ostirala 16:30etik 18:30era; bihar, larunbata 10:00etatik 14:00etara eta domekan 11:00etatik 14:00etara.

Kalitatearen Europar astea IMHn

Lanbide Heziketako kalitate eta gaitasuna ebaluatzeko Euskal Agentziak ISO sistema berri laburtua aurkeztu zuen XII. Kalitatearen Europar Astearen. Honen helburua, gaur egun ikastetxeetan erabiltzen diren kalitate sistemak sinplifikatzea da. Iñaki Mujika, Lanbide Heziketako sailburuordea izan zen IMHn eta berak egin zuten aurkezpena. Guztira Lanbide Heziketako 100 lagun inguru bildu ziren IMHn.

Santa Zezilia Eguna ospatu zuten herriko ikasleek

Azaroaren 22an izan zen Santa Zezilia Eguna, eta urtero bezala, musikariaren zaindaria omentzeko ekitaldiak izan ziren. Martitzenean Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleen emanaldia izan zen. Asteazkenean, bestalde, Ikastolako ikasleen kalejira izan zuten. Goizean goiz atera ziren Plaza Handitik eta kaleak musikaz jantziz, Ikastolaraino joan ziren.



[IRTEERAK]



Elgoibar Ikastolakoak Kutxaespazioan izan ziren

Ikastolako DBH 2. mailakoak Kutxaespazioan izan dira Kutxak eta Naturgaiak antolatutako berde-berdea programaren ekitaldian parte hartzen. Programa honetan ingurugiroarekin erlazioz dutako gaiak landu zituzten eta lortutako puntuen truke, Kutxak dirua emango die Organbidexka eta Kalapie erakundeei.

ELGOIBARKO HERRIA INSTRUMENTU TALDEEN VI. LEHIAKETA Nestor Perezen kartelak iragarriko du



Bigarren urtez jarraian, Nestor Perez eibartarrak, Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatutako kartel lehiaketa irabazi du, "Sormena" izeneko bere lan orijinalari esker. Lan honek, datorren urteko martxoaren 10ean ospatuko den "Elgoibarko Herria" Instrumentu Taldeen VI. Lehiaketa iragarriko du. Lanbidez, arkitektoa eta zaletasun aipagarrien artean, diseinu grafikoa duen eibartar honek, 300 euroko saria jaso zuen. Aurtengoan, sei

lan aurkeztu dira lehiaketara, baina, antolatzaileen hitzetan, oraingo honetan, ez dute zalantzarik eduki kartel garailea hautatzeko garaian, aurreko urtean ez bezala, non, lanen maila altuagoa izan zen.


Nestor Perezek, azken urteetan sari bat baino gehiago eskuratu ditu. Hala nola, Eibarren eta Ondarroan. Era berean, Elgoibarko Lehiaketei ere, neurria hartu die, iazko Danborradako kartel iragarlea ere, berak diseinatutakoa izan baitzen.

'Aterkings taldearen 2. diska kalean da

Pasa den ostiralean, Aterkings musika taldeak "Aterqueens" izeneko bere bigarren diska aurkeztu zuen Bilboko Kafe Antzokian. Bigarren lan honek ere, punk rocka du oinarri eta hamar abestiz osatua dago. Euskal Herri barru-barruko autoktonoetatik, zigarro puruaren ke eta apustu usaineko frontoietatik, patxuli usainezko larruzko eserleku glamourosoetara pasa dira ziztu batean, plataformak eta leopardo mallak gainean jantzita. Ez dute inolako lotsarik eta ez dute ahaztu, beste askok egin duten bezala, rock and rolla ondo pasatzea dela.

"Caminando por etiofia" ikusentzunezkoa ikusgai izango da Kultur Etxean datorren asteazkenean

Azaroaren 29an, "Etiopian zehar oinez" proiektioa ikusgai egongo da Kultur Etxeko aretoan iluntzeko 17:00etatik aurrera. Emanaldi hau, euskaraz nahiz erdaraz eskainiko da. Abisiniako mendikateko lur garaietan oinez egindako bidaiari erakusten digu ikusentzunezkoak. Antolatzailea, Kutxa da, Udal Euskaltegiaren laguntzaz.



IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
MULTIKOPISTAK
FOTOKOPIADORAK
PLANOEN BIRREGILEAK
ERLOJU INDUSTRIALAK
MARRAZKETA MATERIALA
INFORMATIKA
FAX

ML KALOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar



INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA




Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

URKIDI
AHOLKULARITZA

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12





Malape taberna
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel.943 74 19 43

XIII. KARAKATERAKO IGOERA

Aritz Kortabarria arrasatearrak irabazi zuen Karakaterako igoera eta errekor berria ezarri zuen

Inoiz baino antxintxikari gehiago, bildu ditu aurtengo Karakaterako Igoerak. 38 lagunek hartu zuten parte; 20 herritar eta 18 kanpokoak. Tartean emakume bat: Pilar Arriola. Goizeko 11:00etan atera ziren Plaza Handitik Karakaterako aldapari aurre egiteko asmoz. Aritz Kortabarria izan zen azkarrena. 29 minutu behar izan zituen arrasatearrak Karakate puntaraino iristeko. Marka honekin, 1997. urtean Susok ezarritako errekorra (29:43) hautsi zuen. Josu Arregi azpeitiarra izan zen bigarrena eta Ionut Zinka errumaniarra hirugarren postuan sailkatu zen, Karakaterako bidean pare bat aldiz galdu ondoren. Giro bikaina izan zen Karakaten, eguraldi ederra eta freskoa atera zen eta ikusle mordoa bildu ziren partaideei animoak emateko.

Aitzol Arriolari omenaldia

Morkaiko Mendizale Elkartearen Zuzendaritza aldaketa egingo da datorren urterako. Azken 6 urteotan Aitzol Arriola aritu da presidente lanetan, eta Morkaikoko kideek omenaldi txiki bat egin zioten Karakaten. Urte hauetan egintzako lana eskertu zioten Aitzoli.



SAILKAPENA

| Postua | Izena | Herria | Denbora | Postua | Izena | Herria | Denbora |
|--------|------------------------|----------|---------|--------|--------------------------|------------|---------|
| 1 | Aritz Kortabarria | Arrasate | 29:00 | 20 | Javi Basaldua | Elgoibar | 36:13 |
| 2 | Josu Arregi | Azpeitia | 29:18 | 21 | Ibon Serrano | Elgoibar | 37:11 |
| 3 | Ionut Zinka | Gasteiz | 30:05 | 22 | Sabin Zenarruzabeitia | Aulestia | 37:33 |
| 4 | Mikel Navarro | Urretxu | 31:01 | 23 | Xabier Lasa | Andoain | 37:40 |
| 5 | Ibon Gabilondo | Elgoibar | 32:02 | 24 | Josu Orbea | Elgoibar | 37:45 |
| 6 | J.M. Fernandez "Suso" | Elgoibar | 32:19 | 25 | Antton Alberdi | Elgoibar | 37:53 |
| 7 | Iñigo Ortuoste | Elgoibar | 32:32 | 26 | Ibon Villanueva | Elgoibar | 38:16 |
| 8 | Julen Garitano | Antzuola | 32:36 | 27 | Diego Makarro | Zarautz | 38:21 |
| 9 | Joseba Tobar | Tolosa | 33:01 | 28 | Gorka Tornos | Plaentxi | 38:31 |
| 10 | Haritz Arrieta | Elgoibar | 33:27 | 29 | Ignacio Perez | Elgoibar | 38:52 |
| 11 | Jon Revert | Elgoibar | 33:32 | 30 | Eduardo Uribe | Elgoibar | 39:16 |
| 12 | Igor Urionabarrenetxea | Aulestia | 34:00 | 31 | Javi Garduño | Anoeta | 39:41 |
| 13 | Jose Cruz Montes | Elgoibar | 34:00 | 32 | Andoitz Agirregomezkorta | Elgoibar | 40:08 |
| 14 | JA Ruiz del Rey | Elgoibar | 34:23 | 33 | Mikel Elizburu | Plaentxi | 40:40 |
| 15 | Igor Rey | Mendaro | 34:43 | 34 | Pilar Arriola | Elgoibar | 40:46 |
| 16 | Joseba Belazquez | Oñati | 35:12 | 35 | Roberto Garcia | Elgoibar | 41:49 |
| 17 | Igor Agirregomezkorta | Elgoibar | 35:37 | 36 | Javier Oñederra | Elgoibar | 41:51 |
| 18 | Carlos de Cos | Plaentxi | 35:44 | 37 | Jose Luis Diez | Ormaiztegi | 42:11 |
| 19 | Asier Orbea | Elgoibar | 35:46 | 38 | Bittor Kortabitarte | Deusto | 47:23 |

BOLO TXAPELKETA

Javier Osoro txapeldunorde, Euskadiko XVII. Hiru Txirlo Bolo Txapelketan

Pasa den zapatuan, Lasturreko bolatokiari, Euskadiko XVII. Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren laugarren eta azken jardunaldia jokatu zen. Garaipena, Jose Manuel Perez, Asola Berri taldeko eibartarrarentzat izan zen. San Migeldarren parte hartzea handia izan zen kategoria guztietan eta emaitza onak lortu zituzten maila guztietan. Saillkapen orokorrean, aurreneko bost postuetan, bi San Migeldar saillkatu ziren. Batetik, txapeldunorde, Javier Osoro eta laugarren postuan, Anjel Ibarluzea. Taldekako kategoriarri dagokionez, San Migel A taldea nagusitu zen. Bikotetan, Xabier Loiola eta Anjel Ibarluzeak osaturiko bikoteak bigarren postua eskuratu zuten. Infantil eta alebin mailetan, Julen Ibarluzeak eta Jon Ibarluzeak garaipena lortu zuten, hurrenez hurren.



Bukatzeko esan, 2006. urteko Gipuzkoako bolari onena, Xabier Loiola, San Migeldarra izan dela, Bizkaiko hoberena, Ricardo Albizuru, Iruzubietarra izan den bitartean.

Ipar Euskal Herriko mendien erakusketa



Gaur, 22:00etan Musika Eskolako Auditorioan, eta Morkaiko Mendizale elkarteak antolatuta, Panpi Olaizolaren Ipar Euskal Herriko Mendiak izenburupeko saioa eskainiko da. Zuberoatik lapurdira arteko mendien argazkien bidez, artzainen bidean barna, ingurumen babestua ezagutu eta baso, flora zein animalia basatiak miresteko aukera egongo da. Gogorazi bestalde, Morkaikoren uteroko argazki lehiaketa abian dela. Argazkiak aurkezteko epea abenduaren 4an bukatuko da. Gehienez 4 argazki aurkeztu daitezke, 2006an ateratakoak, txuri- beltzean edo koloretan izan daitezke, neuria librea eta gaia mendia. (Informazio gehiago Morkaiko M.E.).

Adur bigarren postuan Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketan

Pasa den domekan, Zanbranan (Arabian), junior mailako Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketa jokatu zen. Adur Juaristi, 16 urteko gazte elgoibartarrak, bigarren postua eskuratu zuen. Aurreneko postua beriz, Jon Apeztegia bizkaitarrarentzat izan zen, puntu bateko aldearekin. Ehiztari honek,

bi eper bota zituen, guztira, 402 puntu lortuz. Adur Juaristik, bestalde, eper eta faisai bana bota zituen, guztira 401 puntu eskuratuz. Hirugarren postua beriz, Oier Ruiz, gipuzkoarrarentzat izan zen. Azken honek, bi faisai bota zituen, 400 puntu bereganatuz.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Soraluze **0** - Elgoibar **8** (kad.)
 Mariño **1** - C.D. Elgoibar **2** (Jub.)
 Pedrusco **0** - C.D. Elgoibar **3** (erreg.)
 R. Union **0** - C.D. Elgoibar **2** (Haundi)
 C.D. Elgoibar **0** - Aloña Mendi **2** (alebin)
 C.D. Elgoibar **2** - Anaitasuna **4** (O. infant.)

ARETO FUTBOLA

Kenci **5** Frutas Adarra **5** (Euskal Liga)
 Kenci **3** - Euromar Kafetegia **2** (Gipuzkoa, 2. maila)
 Elgoibar **5** - MCM **6** (Jub. gipuzk.)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak **22** Eibar **11** (2. mail. nagus.)
 Tartaloetxe **14** - Lagunak **22** (3. mail. nagus.)
 Añorga **22** - Lagunak **10** (3. mail. nagus.)
 Hernani **22** - Lagunak **18** (1. mail. juben.)
 Hernani **22** - Lagunak **18** (2. mail. kad.)

ESKUBALOIA

Aloñamendi **2** - Olalsa **35** (infant. nesk.)
 Amenabar **13** - H Txariduna **24** (infant. mut.)
 Technifuelle **22** - Barakaldo **21** (s. mut.)
 Arrate **8** - Aterpe **12** (infant. nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, 25
 16:30 Haundi - Tolosa (3. maila)
 18:30 Egoibar - Eibartarrak (1. erreg.)
Domeka, 26
 10:30 Elgoibar - Bergara (kad.)
 12:15 Egoibar - Arrasate (O. infant.)

ESKU PILOTA, Ikastolan

Ostirala, 24
 21:15 Lagunak - Ramuntxo (nag.)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 25
 13:00 Aterpe - Aloñamendi B (infant. nesk.)
 16:00 Olalsa - Bergara (infant. nesk.)
 17:30 Lojantzi - San Adrian (s. nesk.)
 19:30 IMH - Berbera (kad. nesk.)
Domeka, 26
 12:30 H Txariduna - Arrate A (infant. mut.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFEAK 10. SARIA

HAUNDIko jokalaria erregularrena **06/07**

| Jokalaria | Puntuak |
|------------------|---------|
| 1. Navarrete | 20 |
| 2. Iker Martinez | 16 |
| 3. Arruti | 13 |
| 4. Morais | 12 |
| 5. Amiano | 10 |

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ San Frantzisko kalean pisua salgai. 100m². Egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. **607741678**

▶ Pisua salgai Altzolan. 2 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Kanpoko aldean lursail txiki bat. Sartzeko moduan. Merkea. **619812448**

▶ Etxea salgai Erretxindin. Altzariekin, 3 logela, egongela, jangela, komuna, 2 terraza eta trastelekua. Eguzkitsua. **680707639**

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.
3 logela, sukaldea,
komuna eta egongela.
Dena kanpoaldera.
Bizitzera sartzeko prest.
943 03 38 44
686 62 21 92

▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m². Gas naturala, igogailua, ormigoizkoa. Bizitzera sartzeko. www.esnips.com/web/etxepolita helbidean argazkiak. **660 884060**

ALOKAIRUA

▶ Etxebizitza alokatzen da Urasandin. **943 742727**

▶ Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. **697897899**

▶ Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa. **666032715**

▶ Pisua alokatzen da Azkoitin. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berritua. Altzariekin. 500 euro hilean. **650186229**

▶ Pisu berria alokatzen da. Igogailua, 2 logela, egongela eta sukaldea. **655711334**

[AUTOAK]

▶ Citroen C3 autoa salgai. Diesel, 70 zaldi, 2004koa. 7.400 euro. **660027976**

▶ Motorra salgai. Vespa 200.1984. 400 euro. Paperak ondo. **943741771**

▶ Opel Kadett 1.6 diesel autoa salgai, motza. 500 euro. **620135958**

▶ Kawasaki GPZ-500S motorra salgai. 91koa, ondo zaindua. Margotu berri. Asegurua 2007ko abuztura arte. ITV maiatzera arte. **616266212**

(15:00etatik aurrera)

▶ Home Cinema JBL salgai. 5 bozgorailu+subflower. Urte bat, gutxi erabilia. Egurrezkoa, apalekin. Kalitate eta soinua bikaina. **616266212**

(15:00etatik aurrera)

▶ Piaggio-Vespa Typhoon 50 RST motorra salgai. 2000. urtekoa. Egoera onean. Garajea lo egiten du. **943742268**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garaje itxia salgai Jausoron. **686 22 44 38**

▶ Garaje itxia alokatzen dut Leku Ederren. **943742034/639353331**

▶ Garajea saldu edo alokatzen dut Urasandi eta Madala artean dagoen Anayak eraikuntzan. Itxia, 2 pisukoa, bakoitzak 24m². **620431480**

▶ Garaje itxia alokatzen dut Jausoro Plazan. 16m². **615787748**

▶ Garajea alokatzen da San Roken, Instituto ondoan. Lehengo Antxustegi. 15m². **616266212 (15:00etatik aurrera)**

▶ Marradun garajea hartuko nuke alokairuan. hilean 60 euro ordaintzeko prest. **655728752**

▶ Lokala salgai Mendaron, Mendarozabal kalean. **635733150**

[BESTELAKOAK]

▶ Taberna ederra salgai. Berritua. Negozioa marxa onean. **607457024/658777609**

▶ Janari denda bateko altzari guztiak saltzen dira. **943743420 (13:00-15:00)**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakumea edozein lanetarako prest. Esperientziaduna. Papelekin. **690701118**

• 60 urteko emakumea garbiketa lanekin egin edo nagusiak zaintzeko prest. **943741872 (17:00etatik aurrera)**

• I. eta 2. Hezkuntzako klase partikularak ematen ditut. **943531054**

• Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Gavez edo egunez. Esperientzia daukat. **943744433**

• Emakumea garbiketa lanekin, etxeko lanekin, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **686617930/943530130**

• Ingeles eta frantses klaseak ematen dira. Natiboa bi hizkuntzatan. **943743011/605772285**

• Mendaroko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. **660674025**

• Emakumea garbiketa lanekin egin edo nagusiak zaintzeko prest. **699609190**

• Gizonezkoa lanerako prest. Obretako peoi, lantokian, garbiketa, gidari lanak... edozer. **666793486**

• Gizonezkoa lanerako prest. Obretako peoi, lantokian, garbiketa, gidari lanak... edozer. **666793486**

• Neska arduratsua arratsaldetan lan egiteko prest. **617033906**

• Neska umeak zaindu eta etxeko lanekin egiteko prest. **617056828**

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **639882004**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **943172896 (Merxe)**

• Kamareroa lanerako prest. Esperientziaduna. Euskaraz egiten dut. **620049420**

• Mutila lanerako prest. **671289583**

• Mutila lanerako prest. **667348215**

• Geriatriako erizaintzako laguntzaile euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. Esperientziaduna, infomeak. **660511781/943742330**

Elena

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **620434550**

• Mutila elektrikari moduan lan egiteko prest. **638716987**

• Emakumea haurrak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. **646 821 678 (Lucia)**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanekin egiteko prest. **638716987**

• Emakumea lanerako prest. **943 530130**

ESKAINZA

• Gabi jatetxerako kamareroa behar da, barra eta jantokirako. **943 741230**

• Jatetxerako kamareroa behar da. **943 12 73 34**

• Harategian lan egiteko mutila behar da, euskalduna. **943742048**

• DBHko ikasleak matematika, fisika eta kimikako klase partikularak hartuko lituzke. **943742199**

ABISUAK

• Ikastola inguruan berokia galdu nuen. Beltza, forro grisa, txanoa dauka. **943742524**

• Pultsera bat galdu dut Mailalen izenarekin. Madala inguruan. **943740065**

• Eguzkitako betaurrekoak galdu ditut. Dona Karan markakoak, beltzak. **699 173635**

• Artzai txakur euskalduna oparitzen dut. 11 hilabetekoa, emea. **605771996 (Arantza)**

• Elgoibarko gasolindegian telefonoz mugikorra utzi du norbaitek. **943 74 43 22**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Iñaki**, gaur 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta batez ere, Iratiren partez.



▶ Zorionak **Izaro** atzo 2 urte egin zenituelako. Etxekoan eta bereziki, lehengusin Naia, Nora, Ander eta Lorearen partez.



▶ Zorionak gure **Sorgintxoari** azaroaren 20an 4 urte egin zituelako. Mila kilo zorioan etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **David** ondo pasatu genuen zure egunean. Musutxoak lkastolako lagun partez.



▶ Zorionak **Danel** hilaren 22an 6 urte egin zenituelako. Danel, Sarai eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Sofia** azaroaren 27an urteak egingo dituzulako. Etxeko guztien partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Azaroaren** 23an 66 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Agur! Ask** maite zaituen lagun baten partez.



▶ Zorionak **Nerea**, gure poxpolinari! Aitxitza, amama eta birramona Mariaren partez. Gurasoen partez mila kilo zorion.



▶ Zorionak **Aitor** azaroaren 29an 7 urte egingo dituzulako. San Rokekoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Aimar** hilaren 27an 5 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez.



▶ Zorionak **Polite** gaur 16 urte egin dituzulako. Jarraitu horren jator. Muxu asko Anaren partez.



▶ Zorionak **Alain eta Aitzol** hilaren 23an eta 25ean urteak egingo dituzuelako. Muxu handi eta potolo bat etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Nora eta Koldo** 3 eta 5 urte beteko dituzuelako. Aitabxo eta amatxoren partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Ruben eta Pablo** 12 eta 7 urte egin dituzuelako. Lerida eta Plaentxiko senideen partez.



▶ Zorionak! **Dagoeneko** badaukazu autoaren aurreko aldean joateko adina!



▶ Zorionak **poxpolin!** Dagoeneko urtebete! Maite zaitugu.

▶ Zorionak **Jose Arizabalagari** 93 urte egin dituelako. Ondo pasa eguna! Alba eta Nerearen partez.

www.elgoiBAREN.net

Hilabete bakarrik daramagu, baina ...

51 NOTIZIA eman ditugu

275 KOMENTARIO inguru eman dituzte

5.345 BISITA izan ditugu

91 HARPIDEDUN daukagu albiste bularrean

... aurrera egiteko deusutzen gauda.

Zuekin batera.

[OKINDEGIA]



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ
24 Etxeberria (Errosario)
25 Ibañez
(* Goizez Yudego)
26 Ibañez
27 Bidasolo
28 Etxeberria (Santa Ana)
29 Fernandez
30 Yudego
31 Zabaleta

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84




Jose Julian Zubiaurre

*Erraza izan zen zu maitatzea
ezinezkoa izango da zu ahaztea.
Beti gurekin izango zara.*

III. URTEURRENA

Urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 25, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome parrokiari.



Etxekoak



Lorea Etxabe Azkue

2003ko azaroaren 26an hil zen
30 urte zituela

*Edur zuritxan hazitxako
lore gorrixa zi an.
Urtu eraitxen zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixao
zure berua igarriko,
ba a hementxe gerauko da
zure arnasan aztarnia,
botatako sustraixen ga ian.*

Zure familia eta lagunak

Bere alde urteurreneko meza izango da, igandean, hilak 26, goizeko 10:30ean San Bartolome Parrokiari.

[24 BARIKAKUA]

22:00 IPAR EUSKAL HERRIKO MENDIAK IKUS-ENTZUNEZKOA
Musika Eskolako auditorioan
Antolatzailea: Kutxa.
Laguntzailea: Morkaiko Mendizale Elkartea.

[25 ZAPATUA]

10:00 - 13:00 eta **15:00 - 20:00**
AUTODEFENTSA IKASTAROA
Gaztetxean

11:00 - 14:00 INFORMAZIO MAHAIA
Plaza Handian.

13:30 TRATU TXARREN AURKAKO KONTZENTRAZIOA
Antolatzaileak: Haizea Emakume Taldea, Biluzik Sexologia Zerbitzua eta Gazte Asanblada.

11:00 ELGOIBARKO 18/98 AUTOINKULPAZIO BILKETA KANPAINA
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko 18/98 taldea.

[26 DOMEKIA]

9:45 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA
Ondoren, 10:30etako mezatan joko du bandak, (Parrokian).

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN SANTA ZEZILIAKO KONTZERTUA
Herriko Antzokian

Egitaraua: "Il Capitano" (C.P. Laporta); "Mar i Bel" (Ferrer Ferran); "The last of the mohicans" (Trevor Jones); "Music for a solemnity" (Jan de Haan) eta "Super Mambo" (D. Perez Prado) Zuzendaria: Jose Antonio Osoro.
(Estreinakoz joko diren obrak izango dira).

11:00 ELGOIBARKO 18/98 AUTOINKULPAZIO KANPAINA
Plaza Handian.
Antolatzailea: Elgoibarko 18/98 taldea.

[29 EGUAZTENA]

19:00 ETIOPIAN ZEHAR OINEZ IKUSENTZUNEZKOA
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.
Antolatzailea: Kutxa
Laguntzailea: Udal Euskaltegia
19:00 EINBIOUREN ASANBLADA
Kultur Etxean

[30 EGUENA]

19:00 GAZTEAK ETA DIZIPLINA HITZALDIA
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.
Hizlaria: Izar Arregi.
Antolatzailea: Udaleko Gazteria Saila

JUBILATUEN ASTEA

Azaroak 28 (martitzena)
18:00 Txokolatada

Azaroak 29 (eguztana)
Iraxera irteera

Azaroak 30 (eguztana)
18:00 40 gabonetako otarre-
ren zozketa

Abenduak 1 (barixakua)
80 urtetik gorakoen eta
urrezko ezteiak beteko dituz-
tenen bazkaria

ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«El diablo viste de Prada»
24, barixakua: 22:15
25, zapatua; 19:30-22:15
26, domeka; 19:30-22:15
27, astelehena: 21:30
« La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja»
26, domeka: 16:30
« Las partículas elementales»(Z.K)
30, eguztana: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Casino Royale»
24, barixakua: 19:30-22:15
25, zapatua: 17:00-19:45-22:30
26, domeka: 17:00-19:45-22:30
27, astelehena: 19:30-22:15
28, martitzena: 19:30-22:15
29, eguztana: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Yo soy la Juani»
24, barixakua: 19:30-22:15
25, zapatua: 17:00-19:30-22:15
26, domeka: 17:00-19:30-22:15
27, astelehena: 19:30-22:15
28, martitzena: 19:30-22:15
29, eguztana: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

SINOPSIAK

«El diablo viste de Prada»

Zuzendaria: David Frankel.
Antzezleak: Meryl Streep, Anne Hathaway.
Andrea (Anne Hathaway), New Yorkeko moda aldizkari ospetsu eta glamuroso batean hasiko da lanean Miranda (Meryl Streep) editorearen esanetara. Honek ezartzen du modaren norabidea eta milioika irakurlek beren gomendioak jarraitzen dituzte eta bere langile nahiz kolaboratzaileek geniotzat dute. Mundu guztiak miresten du Miranda, Andreak izan ezik. Andrea ez da utziko, fribolitate eta diseinuzko itxurakeriagatik iruzur egiten.

«Las partículas elementales» (Z.K)

Zuzendaria: Oskar Roehler.
Antzezleak: Moritz Bleibtreu, Christian Ulmer
Michael eta Bruno gauza bakarra dute komunean: ama bera; baina, hau ez zen sekula beraien kargu egin. Michael eta Bruno, gava eta eguna bezalakoak dira. Michael biologo molekular bat da, ikerketarako baino bizi ez dena. Bruno osterera, bere fantasia sexualen esklabu da. Hogeita piku urterekin, biek ere, maitasuna ezagutu eta beren bizitzak bide onetik dozela ematen duenean, zoriak trantze txar bat jokaraziko diete.

Atzera hegira



1947 urteko erretratu zahar hau **Udal Musika Bandako** artxibotik ekarri digute. San Bartolome jaie-tako tanborradan, Muguruza "Katanarra" Palazioko lorategian ateratako argazkia da. Gaur egun Giza Eskubideen Enparantzarako sarreran dagoen arku, lehen Muguruza Jauregiaren sarrera zen. Egun, herritaren informaziorako lokala dago bertan. Aste honetan bertan, Santa Zezilia Eguna izan denez, aproposa iruditu zaigu musika kutsua daukan argazki hau argitaratzea. Hemen agertzen diren musikari guztiak elgoibartarrak dira. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: **Jose Elkor-Iribe** (), **Moises Agirre**, **Julian Iriondo**, **Aurelio Diego**, **Jose Zubiaurre**, **Pepe Arano** (), **Jose M^e Gil** (), **Juan Martinez** (), **L. Perez-Cortes**, **J. Perez-Cortes**, **D. Julio Perez-Cortes** () (Bandako zuzendaria), **Luis Ostolaza**, **Enrike Arano** (), **Agustin Arriola**.

Bigarren ilaran: **Jose Luis Ajubita**, **Jose Izagirre**, **Gerardo Garate** (), **Inazio Beloki**. **Gema Uriguen "EtxegiÖa"** (), **Manuel RiaÖo** (), **J. Juaristi** (), **Julian Zabaleta**, **Enrike Eguren**.

Hirugarren ilaran: **Pedro Izagirre** (), **Canuto Gabilondo** (), **Sabin LarraÖaga** (), **Patxi Igartua**, **Nemesio Ansola**, **D. Muguruza** (), **Rakel Gurutzaga** (), **Maritxu Kortaberria** (), **Lourdes Uriguen**, **P. Muguruzaren emaztea** ().

Beheko ilaran, makurtuta: **Santiago Ezenarro (Xanti bonberua)** (), **Manuel Unzilla**, **Carlos Unzilla** (), **Bittor Arieta**, **Miren Beloki**, **Antonio Beloki** (), **Maite Vallejo**, **Alfredo Perez** () eta **Manuel Zabala**.

| | | | |
|---|--|--|--|
|   % 20-ko DESKONTUA | Giauto  OPARI EROSOA 2 EDO 4 GURPIL EROSTEAGATIK | 4 GURPIL EROSTEAGATIK  2 GURPIL EROSTEAGATIK  ABENDUAREN 15ERA ARTE Olaso, 25 · Tel. 943 74 41 15 |  www.giauto.es clientes@giauto.es 902 345 125 |
|---|--|--|--|

elgoibar

www.residencialgeminis.com

48 etxebitza, 2 eta 3 gelakoak
117 garaje eta 76 trasteleku



infolur
agente inmobiliario

Tfno.: 943 74 80 92



259.000 €-tik
garaje eta trasteleku barne
(43.093.974 ptas.)



Especies de Bienestar

Argibideak: INFOLUR C/ Antonio Arrillaga, 1 behea. 20870 Elgoibar. info@infolur.net - www.infolur.net



PiRRITx eta PORROTx

Mari Motots

Abenduak 27, asteazkena
16:30 eta 18:30etan
HERRIKO ANTZOKIAN

SARRERAK SALGAI honako leku
hauetan abenduaren 1etik aurrera:

1. saioa: GOROSTIZA liburu dendan
2. saioa: PITXINTXU liburu dendan

Gazteboek [16 urte arte] 3 euro eta helduek 6 euro



Euskara
Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Eusko
Jaurilaritza

HENRY BENGOA INVENTARIUM

Bernardo Atxaga

Euskararen Eguna dela eta
antolatutako ekitaldia


Abenduak 1, ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian



KANDIDO URANGAren
ikusbizia



Aventuras y desventuras de Perico de los Palotes



Abenduak 3,
igandea
16:30ean
Herriko Antzokian

Tolosako
titirijai 06
24. Nazioarteko
Txotxongilo
Jaialdian
partehartzaileak

